



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2021/05/25ean EGINDAKO OHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA
CORPORACIÓN. Día 25/05/2021.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2021eko maiatzaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoen parte hartzearekin, telematikoki bildu da Udalbatza, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Purificación Regidor, Dorleta Sologaistoa eta Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 25 de mayo de 2021, telemáticamente quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Purificación Regidor, Dorleta Sologaistoa y Ander Errarte.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABNZEB.QUS4>

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinario
2021/05/25



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2021eko apirilaren 24an eta 2021eko maiatzaren 11n egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2021eko martxoaren 18ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Eluska Irazuk ondorengo erabakiei buruzko informazioa eskatu du:

- 541/2021 zenbakia (terrazan aldaketa batzuk egiteko baimen eskaera). Galdetu du baimenak ematen diren ala ez, eta esan du aurreko osoko bilkuran ere beste erabaki baten berri eman zela, eta, inolako batzordetan tratatzen ez direnez, ez dakiela baimendu diren ala ez. Erantzun zaio baietz, zerrenda horretan agertzen bada txosten tekniko batean oinarritutako erabaki bat egon delako dela.
- 609/2021 erabakia (EGoitek. Martxoak 19-ekaina kalteordainen eskaera). Zer den galdetu du. Jakinarazten zaio 2020an legez zegokion kalte-ordainaren likidazioa dela, bere kontratua partzialki etenda egon zelako pandemiarengatik.
- 704/2021 zenbakia. Zer den galdetu du. Esan zaio bulegoko materialaren erosketarekin zerikusia duela.
- 594, 595 eta 703/2021 zenbakiak. Luis Ezeizako teiltua eraberritzearekin lotutakoak direla esan ondoren, galdetu du zer fasetan dagoen kontratazioa. Jakinarazi zaio lanak joan zen ostiralean esleitu zirela, kontratua aste honetan sinatuko dela, eta, lanak, baldintza agirian jasotakoaren arabera, ekainaren amaiera aldera hasia aurreikusten dela, eta 23 laneguneko (asteleheneetik ostiralera) epea dutela amaitzeko.

3.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturik egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientearen onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboak eta bertan jasotako diru kopuruegatik:

ZERGAK ETA TASAK:

KONTZEPTUA/ EPEA/ZENB	ZENBA TEKOA	ZERGADUNA	ZERGATIA
----------------------------------	------------------------	------------------	-----------------

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinario
2021/05/25

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

	€		
PLUSBALIA/2020/5	597,81	ALONSO IREGUI JOAQUIN	%100a LIKIDATU BEHAR ZAIO
PLUSBALIA/2020/44	546,35	ITURBE PZ DE NANCLARES ELISA	2021KZER0001 Errekurtsoa onartu zen. Beste likidazio bat egiten da.
PLUSBALIA/2020/65	337,66	RIVAS MULAS ELOY	2021KZER0004 Errekurtsoa onartu zen. Beste likidazio bat egiten da.
PLUSBALIA/2020/66	337,66	RIVAS MULAS ISURI	2021KZER0004 Errekurtsoa onartu zen. Beste likidazio bat egiten da.
PLUSBALIA/2020/67	337,66	RIVAS MULAS JULIA	2021KZER0004 Errekurtsoa onartu zen. Beste likidazio bat egiten da.
PLUSBALIA/2020/6	996,42	AMARAL DE SOUSA TAMARA	2021KZER0002 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/24	38,26	GARCIA IZURRATEGUI JAIONE	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/35	38,26	IRIONDO CIGORRIAGA MATIAS	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/36	76,52	ISASMENDI ELGOIBAR ARANTZA	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/37	38,26	ISASMENDI ELGOIBAR JOSE ANTONIO	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/38	38,26	ISASMENDI ELGOIBAR JOSE IGNACIO	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen.

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

			Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/39	76.52	ISASMENDI ELGOBIAR M. ANGELES	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/40	38,26	ISASMENDI ELGOIBAR M. CONCEPCIÓN	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/41	38,26	ISASMENDI ELGOIBAR MIKEL	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/42	38,26	ISASMENDI MATA AMAIA	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/43	38,26	ISASMENDI MATA MIRIAM	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia. Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/55	38,26	MARTINEZ BARRAL NURIA	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.
PLUSBALIA/2020/57	38,26	MATA CARMONA ANTONIA	2021KZER0003 Errekurtsoa onartu zen. Minusbalia.

URTEA	ESPEDIENTE ZK.	ERANSKINA	ZENBATEKOA €	ZERGATIA	TITULARA
2012	273	6	64	EXEKUTIBA GAUZATU GABE	Bodegas Cándido Besa SA
	274	6	52,50	EXEKUTIBARA PASATU GABE	Pascual Salas Antonio
	310	701	210	EXEKUTIBARA PASATU GABE	Ferreira Gomez

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

					Manuel Alberto
	311	701	52,50	BIDE PENALA	Ferreira Gomez Manuel Alberto
2013	130	5	210	BIDE PENALA	Morales Martinez Jon
	131	5	250	BIDE PENALA	Morales Martinez Jon
	133	701	100	EUSKO JAURLARITZAN ORDAINDUTA	Otamendi Gallego Jone
	149	702	250	BIDE PENALA	Olibariz Bilbao Juan Ramon

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuegatik preskribatuztat edo baliogabetuztat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

4.- ABALA ITZULTZEKO SASOI ERAIKUNTZAK S.L.-K EGINDAKO ESKAERA

Udalbatzarrak 2015eko ekainaren 2an hartutako erabakiz, SASOI ERAIKUNTZAK S.L. enpresari esleitu zitzaion SAN PEDRO AUZOA (10 zenbakitik 16-17 zenbakietara) BERRURBANIZATZEKO proiektuan aurreikusitako obren kontratua 212.752,12 eurotan gehi BEZari dagozkion 44.677,95 eurotan.

Kontratua esleitzeko ezarritako baldintzak betez, SASOI ERAIKUNTZAK S.A. enpresak Caja Rural de Navarra S. Coop-ek emandako abala jarri zuen 2015eko ekainaren 2an, esleitutako kontratutik eratorritako betebeharrak beteko ziren berme bezala.

Abal hori kitatzeko baimena eskatu du SASOI ERAIKUNTZAK S.L. enpresak.

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusita, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Caja Rural de Navarra S. Coop-ek SASOI ERAIKUNTZAK S.L. enpresaren alde emandako 10.637,61 euroko abala (Zkia.: 68.383) kitatzeko baimena ematea. Abal hori SAN PEDRO AUZOA (10 zenbakitik 16-17 zenbakietara) BERRURBANIZATZEKO proiektuan aurreikusitako obren zati bat ondo egikarituko zen berme bezala jarri zen.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Bigarrena.- Aipatutako abalaren originala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

5.- BAKE EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Bake epaile titularra eta ordezkoa aukeratzea Udalbatzarrari dagokio.

2021eko martxoaren 23an Udalbatzarrak hautaketa irizpideak onartzea erabaki zuen eta lehiaketa deitu zen 2021eko apirilaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (64. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren bidez, eta baita Udaletxeko iragarki oholean eta epaitegian jarritako iragarki bidez ere.

Eskaerak aurkezteko 15 eguneko epean pertsona bakarrak aurkeztu du eskaera, [REDACTED] andreak.

Egin beharreko kudeaketak egin ondoren, egungo bake-epaile [REDACTED] ados dago ordezko bake-epaile bera izendatzearekin, eta, beraz, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzailea egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

“ [REDACTED] andrea Eskoriatzako bake epaile titular eta [REDACTED] andrea ordezko epaile aukeratzea eta horien izendapena proposatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Goreneko Gobernu-aretoari; eta horrekin batera, proposatutako epaileen inguruabarren berri ematea”.

6.- 2021eko LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA.

Udalbatzaren 2021eko urtarrilaren 26ko erabakiz, Eskoriatzako Udalaren 2021eko Lanpostuen Zerrenda onartu zen.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak eskatuta, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorritz, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzako Udalaren 2021erako lanpostuen zerrenda aldatzea, erabaki honen eranskinean xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.- Aldaketa hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

7.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinario
2021/05/25



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2021eko lehen hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 8 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

8.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEBIZITZA ERABILTZeko BAIMENA BERRESTEA.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Gizarte Zerbitzuetako batzordeak 2021GLEE0001. espedientedun pertsonari gizarte larrialdietarako etxea aldi baterako erabiltzeko behin-behineko emandako baimena berrestea.

Bigarrena.- ESKORIATZAKO UDALAK KUDEATUTAKO GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEAREN BARNE ERREGIMENeko ERREGELAMENDUKO 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baimenaren indarraldia luzatu ahal izango da, aldez aurretik horren beharra egiaztatzen bada, eta zerbitzuaren ardura duen gizarte langileak aldeko txostena egin eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak baimentzen badu.

9.- 9/2021 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 9. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onspen proposamena irakurri dira.

Aztertu eta bozkatu ostean, bertaratutako EH BILDUKO 2 zinegotzi abstenituta, eta bertaratutako gainerako udal batzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinario
2021/05/25

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 9. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

Kredituak transferituko dituzten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0500.471.430.00.01 2021	DIRU LAGUNTZA: ENPLEGUAREN BABESA	40.000,00	40.000,00	0,00
	GUZTIRA	40.000,00	40.000,00	0,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0500.471.439.00.01 2021	DIRU LAGUNTZA: TOKIKO.JARDUERA EKONOMIKOA SUSPERTZEA	0,00	40.000,00	40.000,00
	GUZTIRA	0,00	40.000,00	40.000,00

* Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

BOTO AZALPENA ETA IZANDAKO EZTABAIDA:

- Eluska Irauzu: izena aldatu arren, beste aldaketa baten aurrean gaude hainbeste aldaketen artean. Eta betikoa, dirulaguntzak ondo daude laguntza ekonomikoa dakarten neurrian, baina askoz hobeto leudeke baldin eta horretarako aurreikusitako kreditua, guztia ez bada ere zati handi bat bai, banatuko balitz; eta, zoritxarrez, azkenaldian ez dugu hori ikusten, eta deitzen diren laguntzen artean euro asko eman gabe geratzen dira. Horren aurrean, guk uste dugu "entregatu ez izanak" hausnarketa eta azterketa merezi duela, eta hala eskatu dugu eta eskatzen jarraituko dugu. Eta ez dugu ikusten horrelakorik egin denik, ezta egiteko asmorik dagoenik ere. Orduan, orain arte deitu diren laguntzak "ad hoc" izan direla eta gehienak eman gabe geratu direla ikusita, azterketa, analisi edo hausnarketa horren beharra ikusten dugu, partida honekin berriz ere gerta ez dadin. Ondo dago laguntzak onartzea, baina egokiena laguntza horiek osorik banatzea da. Hausnarketa eta azterketa hori egitea eskatzen dugu, eta horregatik abstenitu egiten gara puntu honetan.
- Josu Ezkurdia: ez dut kritika hau ulertzen eta arrazoia esango dut. Iaz, gizarteak eskatzen zutenarekin eta Europak eta Gobernuak eskatzen zutenarekin bat zetorren laguntza-lerro bat atera zen: enpleguari eustea. Diru dezente bideratu zen horretara, baina ezin izan zen banatu, baina ez laguntzak gaizki jasota zeudelako, baizik eta errealitate oso aldakorra bizi izan zelako pandemiarekin, orain beharrezkoa zirudiena gero ez zen. Enpresa txikiei enpleguari eusten laguntzeko egokia zela uste genuena, ez zen horrela izan, ezin izan baitzuten dirulaguntzarik eskuratu. Eta adibide gisa jartzen dut laguntzak, beste helburu batzuetarako ez ezik, langileen gizarte-segurantzako kotizazioak ordaintzeko ere bazirelako, eta berehala, lege-arau bidez, kotizazio horietatik salbuetsi zituzten eta jada ezin izan zuten kontzeptu horregatik dirulaguntzarik jaso. Eta guk ikasi egin dugu, esperientzia horietatik ikasi, eta lehen ere egin genuen bezala, orain ere egin dugu, ostalaritzako sektoreko ordezkariarekin bildu gara, haiei entzun diegu eta gure ustez eskuragarriagoa izango den dirulaguntza ildo bat birdiseinatu dugu. Eta horixe egin dugu

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

hilabete hauetan: haiekin hitz egin, haien beharrak entzun eta planteamendu irekiago bat egin; planteamendu hori bi laguntzatan oinarritzen da, bata gastu arruntetarako, gehienez 1200 euro establezimendu bakoitzeko, eta, bestea, 600 eurokoa establezimendu bakoitzeko, terrazak egokitzeko. Azken laguntza hori terrazetarako proposatu da, pandemia dela-eta barrualdean dituzten edukiera-mugak konpentsatzeko. Barruko edukiera-mugak aldatzen direlako ez dela beharrezkoa terrazetarako laguntzak erabiltzea, ba, gerta daiteke, etengabeko aldaketa egoera batean gaudelako. Bi kontu azpimarratu nahi ditut: bata, oso errealitate aldakorrean gaudela eta laguntza teknikoaren bidez saiatzeko ari garela laguntzek egoera berri horri ere erantzun diezaioten; eta, bigarrena, ostalariekin hitz egiten dugula eta beraien beharrak entzuten ditugula, laguntza horietarako bideratzen dugun dirua eskuratu ahal izan dezaten. Dirua ez dela erabiltzen gaur egungo egoera guztiz aldatzen delako? Bada, ez dago zertan kezkatu, diruak Udalean jarraituko duelako eta beste laguntza batzuk deituko ditugulako eskuragarri dagoen diruarekin, orain arte egin dugun bezala. Azkenean, helburua bat besterik ez da: herriko establezimenduei laguntzea. Eta gauzak ez ditugu aldatzen gaizki eginda daudelako, errealitatea oso azkar aldatzen delako baizik, eta guk prozedura bat jarraitu behar dugu errealitate berri horretara egokitzeko.

- Eluska Irauzu. Eskerrik asko, Josu. Guk ere espero dugu oraingoan diru guztia banatuko dela eta denek eskuratu ahal izango dituztela eskatzen dituzten laguntzak, ez daitezela eman gabe gelditu arrazoi formalengatik edo bestelakoengatik. Hala ere, badakigu batzuek ezin izango diotela terrazetarako laguntzari etekina atera, baina, bai, besterik ez bada ere, beste laguntza eskatu, eta bada zerbait.
- Alkatea: Josuk esan bezala, eta azpimarratu nahi dut, laguntza horiek ostalaritza-sektoreko ordezkariekin adostu dira, haiekin kontrastatu dira eta haiek jakitun dira. Zuek, orain arte, batzordeetan, hausnarketa eskatu besterik ez duzue egin, baina ez duzue proposamen zehatzik egin. Eta hori ere beste aukera bat da: proposamen zehatz bat mahai gainean jartzen baduzue, guk, gobernu-talde gisa, hori aztertzeko konpromisoa hartzen dugu, eta bideragarria bada, ez dugu arazorik izango gauzatzeko. Azkenik, Udalak egingo ez duena da justifikatu gabeko gastuak ordaintzea, gastu guztiek justifikatuta egon behar dute.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

- Eluska Irauzu: jakina, gastuak justifikatuta egon behar dutela, eta proposamenik egin ez dugunaren gainean, bere garaian egin genuen, eta erantzuna ezezkoa izan zen. Beraz, gure proposamenak indarrean dirau, eta uste dut ez duela zentzurik berriro planteatzea berriz ere "ezezkoa" jasotzeko.
- Josu Ezkurdia: barkatu, ez da eztabaida luzatzeagatik, baina ez dakigu zein proposamenez ari zareten. Baina, lasai, hemendik atera bezain laster, zuek izandako batzordeetako aktak irakurriko ditugu, baten batean proposamen hori agertzen den ikusteko. Ez dut uste zehatza ez den, legezko estaldurarik ez duen, kuantifikatu ez dagoen eta dirua banatu behar dela esatera mugatzen den zerbaiti buruz ari zaretenik. Balizko proposamen hori agertzen bada, ez izan zalantzarik ez dugula arazorik izango zuekin jorratzeko.

10.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 2/2021 ALDAKETA

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, komenigarria ikusi da planaren 2021-eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea lerro estrategikoetako dirulaguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko edo aldatzeko.

Aldaketa horiek honako hauek dira:

7. LERRO ESTRATEGIKOKO (SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA SOZIALA) G) PROGRAMAREN "ENPLEGUAREN BABESA COVID-19ak ERAGINDAKO SEKTOREETAN" indargabetu eta honako lerro berri hau sortzea: .

J) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: TOKIKO JARDUERA EKONOMIKOA SUSPERTZEA

HARTZAILEAK: Norberaren konturako langileak edo autonomoak eta 20 langile baino gutxiagoko enpresa txikiak, edozein dela ere bere forma juridikoa, eta, deialdiaren laguntza lerroaren arabera, industria edota merkataritza edota ostalaritza sektoreetakoak izan beharko direnak.

HELBURUA: Egoitza fiskala Eskoriatzan duten autonomoei eta enpresa txikiei laguntzea beraien jarduerarekin jarrai dezaten, ohiko funtzionamenduak sortutako gastuak finantzatzen ahalbidetuko dizkieten hainbat laguntza lerro bidez.

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinario
2021/05/25



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

LORTU GURA DENA: Tokiko jarduera suspertzea eta sektore horien jarduera ekonomikoari, enpleguari eta lehiakortasunari eustea, Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioei aurre egin ahal izateko.

DIRULAGUNTZA MOTA: norgehiagokaren edo emakida indibidualizatuaren bidez, deialdian jasotakoaren arabera.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 40.000- euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.471.439.00.01 2021

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, bertaratutako EH BILDUko bi zinegotziak abstenituta eta bertaratutako gainerako zinegotziek alde bozkatuta, Plan Estrategikoa aurrekarietan jaso bezala aldatzea ERABAKI DA.

11.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:45ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de las sesiones celebradas en fecha 24 de abril y 11 de mayo de 2021

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

Se da traslado de la Resoluciones dictadas hasta el día 18 de mayo de 2021.

Eluska Irauzu solicita información sobre las siguientes resoluciones:

- Nº 541/2021 (terrazan aldaketa batzuk egiteko baimen eskaera) Pregunta si se dan o no las autorizaciones, afirmando que en el anterior pleno también se dio cuenta de otra resolución y que al no ser tratadas en ninguna comisión desconoce si se llegan a autorizar o no. Se le responde que si, que si aparece en esa relación es porque ha habido un acuerdo sustentado en un informe técnico.
- Nº 609/2021 (EGoitek. Martxoak 19-ekaina kalteordainen eskaera. Pregunta a que responde. Se le informa que es la liquidación de la indemnización que legalmente le correspondía en 2020 por haber estado su contrato parcialmente suspendido a cuenta de la pandemia
- Nº 704/2021. Pregunta de qué se trata. Se le responde que relativo a la compra de material de oficina.
- Nº 594, 595 y 703 /2021. Tras manifestar que son relativos a las obras de reforma del tejado de Luis Ezeiza pregunta en qué fase está la contratación. Se informa que las obras se adjudicaron el pasado viernes, que el contrato se firmará a lo largo de esta semana y que la obras, según las previsiones del pliego, se prevé empiecen a finales de junio, con un plazo de ejecución de 23 días laborables de lunes a viernes.

3.-BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS.

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se relacionan:

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinario
2021/05/25

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

IMPUESTOS Y TASAS:

CONCEPTO/ PLAZO/Nº	CANTIDAD €	CONTRIBUYENTE	MOTIVO
PLUSBALIA/2020/5	597,81	ALONSO IREGUI JOAQUIN	HAY QUE LIQUIDARLE EL 100%
PLUSBALIA/2020/44	546,35	ITURBE PZ DE NANCLARES ELISA	2021KZER0001 Se admitió el recurso. Se realiza una nueva liquidación.
PLUSBALIA/2020/65	337,66	RIVAS MULAS ELOY	2021KZER0004 Se admitió el recurso. Se realiza una nueva liquidación.
PLUSBALIA/2020/66	337,66	RIVAS MULAS ISURI	2021KZER0004 Se admitió el recurso. Se realiza una nueva liquidación.
PLUSBALIA/2020/67	337,66	RIVAS MULAS JULIA	2021KZER0004 Se admitió el recurso. Se realiza una nueva liquidación.
PLUSBALIA/2020/6	996,42	AMARAL DE SOUSA TAMARA	2021KZER0002 Se admitió el recurso. Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/24	38,26	GARCIA IZURRATEGUI JAIONE	2021KZER0003 Se admitió el recurso. Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/35	38,26	IRIONDO CIGORRIAGA MATIAS	2021KZER0003 Se admitió el recurso. Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/36	76.52	ISASMENDI ELGOIBAR ARANTZA	2021KZER0003 Se admitió el recurso.

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

			Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/37	38,26	ISASMENDI ELGOIBAR JOSE ANTONIO	2021KZER0003 Se admitió el recurso. Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/38	38,26	ISASMENDI ELGOBIAR JOSE IGNACIO	2021KZER0003 Se admitió el recurso. Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/39	76.52	ISASMENDI ELGOBIAR M. ANGELES	2021KZER0003 Se admitió el recurso. Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/40	38,26	ISASMENDI ELGOIBAR M. CONCEPCIÓN	2021KZER0003 Se admitió el recurso. Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/41	38,26	ISASMENDI ELGOIBAR MIKEL	2021KZER0003 Se admitió el recurso. Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/42	38,26	ISASMENDI MATA AMAIA	2021KZER0003 Se admitió el recurso. Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/43	38,26	ISASMENDI MATA MIRIAM	2021KZER0003 Se admitió el recurso. Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/55	38,26	MARTINEZ BARRAL NURIA	2021KZER0003 Se admitió el recurso. Minusvalía.
PLUSBALIA/2020/57	38,26	MATA CARMONA ANTONIA	2021KZER0003 Se admitió el recurso. Minusvalía.

AÑO	Nº ESPEDIENTE	ANEXO	CANTIDAD €	MOTIVO	TITULAR
-----	------------------	-------	---------------	--------	---------

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2012	273	6	64	SIN FINALIZAR LA EJECUTIVA	Bodegas Cándido Besa SA
	274	6	52,50	SIN PASAR A EJECUTIVA	Pascual Salas Antonio
	310	701	210	SIN PASAR A EJECUTIVA	Ferreira Gomez Manuel Alberto
	311	701	52,50	VÍA PENAL	Ferreira Gomez Manuel Alberto
2013	130	5	210	VÍA PENAL	Morales Martinez Jon
	131	5	250	VÍA PENAL	Morales Martinez Jon
	133	701	100	ABONADO EN EL GOBIERNO VASCO	Otamendi Gallego Jone
	149	702	250	VÍA PENAL	Olibariz Bilbao Juan Ramon

SEGUNDO.- Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

4.-SOLICITUD DE DEVOLUCIÓN DE AVAL CURSADA POR SASOI ERAIKUNTZAK

S.L.

Por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de 2 de junio de 2015 se adjudicó a SASOI ERAIKUNTZAK S.L. el contrato de las obras contempladas en el Proyecto de REURBANIZACION DEL BARRIO SAN PEDRO DEL N° 10 al N° 16-17 por un precio de 212.752,12 € más 44.677,95 €, correspondientes al IVA.

En cumplimiento de las condiciones impuestas para la adjudicación del contrato, el 2 de junio de 2015, SASOI ERAIKUNTZAK S.L. depositó aval emitido por la Caja Rural de Navarra S.Coop., como garantía del cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato adjudicad.

Construcciones SASOI ERAIKUNTZAK S.L. solicita se autorice la cancelación de dicho aval.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Visto el informe emitido por los servicios técnicos por unanimidad, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todo los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Autorizar la cancelación del aval N.º 68.383 emitido por la Caja Rural de Navarra S.Coop a favor de SASOI ERAIKUNTZAK S.L. por un importe de 10.637,61 y en concepto de garantía de la correcta ejecución de parte de las obras contempladas en el en el Proyecto de REURBANIZACION DEL BARRIO SAN PEDRO DEL Nº 10 al Nº 16-17

Segundo: Dar traslado del original de dicho aval al interesado al objeto de que gestione la cancelación del mismo.

5.-PROPUESTA DE NOMBRAMIENTO DE JUEZA/ A DE PAZ TITULAR Y SUSTITUTO/A

Atendiendo que la elección tanto del Juez de Paz Titular y Sustituto corresponde al Pleno del Ayuntamiento.

Atendiendo que por acuerdo del Pleno de fecha 23 de marzo de 2021 se aprobaron los criterios para la selección y se convocó concurso mediante publicación del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 64 , de fecha 9 de abril de 2021, así como en los Tablones de Anuncios del Ayuntamiento y del Juzgado.

Resultando que dentro del plazo de quince días establecido para presentar solicitudes sólo ha cursado solicitud Dña. [REDACTED].

Resultando que, hechas las oportunas gestiones, Dña. [REDACTED], actual Jueza de Paz Titular, se ha mostrado conforme a su nombramiento como Jueza de Paz Sustituta, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda , el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

“Elegir a Dña. [REDACTED] Jueza de Paz de Eskoriatza y a Dña. [REDACTED], Jueza Sustituta, proponiendo su nombramiento a la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco; a la que a su vez se dará traslado de las circunstancias personales de las juezas propuestas.”

6.- MODIFICACIÓN DE LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO 2021

Por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de fecha 26 de enero de 2021 se aprobó la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Eskoriatza para el año 2021.

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinario
2021/05/25



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Con el objeto de solventar determinados errores observados en dicha relación a instancia de la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

Primero: Modificar la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Eskoriatza para 2021 conforme a lo dispuesto en el Anexo del presente acuerdo.

Segundo: La presentes modificación se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación.

7.-INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO (art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el pago de las obligaciones adquiridas por este ayuntamiento correspondiente al primer trimestre de 2021.

El Pleno, con la asistencia de 8 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

8.-RATIFICACIÓN DE LA AUTORIZACIÓN PARA HACER USO DE LA VIVIENDA DE EMERGENCIA SOCIAL

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

Primero: Ratificar la autorización provisional concedida por la Comisión de Servicios Sociales a la persona con nº de expediente 2021GLEE0001 para que haga uso temporal del piso de emergencias social.

Segundo: De conformidad con lo previsto en el art. 6 del REGLAMENTO DE RÉGIMEN INTERIOR DEL PISO DE EMERGENCIA SOCIAL GESTIONADO POR EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA, el plazo de vigencia de la autorización podrá ser ampliado en el supuesto que, previa acreditación de la necesidad, sea informada favorablemente por la Trabajadora Social responsable del servicio y autorizado por la Comisión de Servicios Sociales.

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinario
2021/05/25



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

9.-EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CRÉDITOS Nº 9/2021

Dada cuenta del Expediente de Modificación de Créditos Nº 9 , mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento.

Se da lectura al Informe emitido por la Secretaria-Interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por los arts. 28 a) y 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales.

Igualmente se da lectura al informe favorable y propuesta de aprobación formulada por la Comisión Informativa de Personal y Hacienda.

Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, con el voto a favor de todos los corporativos presentes , el Pleno ACUERDA:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos, nº 9 , mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por Capítulos.

Partidas de gasto que transferirán créditos (bajas)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0500.471.430.00.01 2021	DIRU LAGUNTZA: ENPLEGUAREN BABESA	40.000,00	40.000,00	0,00
	GUZTIRA	40.000,00	40.000,00	0,00

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinario
2021/05/25

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Partidas de gasto que recibirán créditos (altas)

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0500.471.439.00.01 2021	DIRU LAGUNTZA: TOKIKO.JARDUERA EKONOMIKOA SUSPERTZEA	0,00	40.000,00	40.000,00
	GUZTIRA	0,00	40.000,00	40.000,00

* Se podrán crear nuevas partidas presupuestarias

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se

EXPLICACIONES DE VOTO Y DEBATE PRODUCIDO:

- ELuska Irauzu: Aunque se cambie el nombre, estamos ante un nuevo cambio entre tantos cambios. Y lo de siempre, las subvenciones están bien en la medida que implican una ayuda económica, pero estarían mucho mejor si, aunque no sea todo sí una parte muy importante, se repartiera el crédito previsto para ello; y, por desgracia, últimamente no estamos viendo eso, y quedan sin concederse muchos euros de entre las ayudas que se convocan. Ante eso, nosotros lo que creemos es que ese “no haberse entregado” merece una reflexión y un análisis, así lo hemos pedido y lo seguiremos pidiendo. Y no vemos que se ha hecho nada de eso y tampoco vemos que haya intenciones de hacerlo. Entonces, viendo que las ayudas que hasta ahora se han convocado han sido “ad hoc” y que han quedado sin concederse en su mayoría, vemos la necesidad de ese estudio, análisis o reflexión para que no vuelva a pasar nuevamente con esta partida.

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Está bien aprobar ayudas, pero lo ideal es que esas ayudas se repartan en su totalidad. Pedimos que se haga esa reflexión, ese análisis y por ello nos abstenemos en este punto.

- Josu Ezkurdia: No entiendo esta crítica y diré el porqué. El año pasado se sacó una línea de ayudas acorde con lo que la sociedad reclamaba y lo que se pedía desde Europa y el Gobierno, mantener el empleo. Se destinó bastante dinero a ello pero no se pudo repartir, pero no porque las ayudas estaban mal contempladas sino porque con la pandemia se vivió una realidad muy cambiante, lo que ahora parecía necesario luego ya no lo era. Lo que creíamos que era adecuado para ayudar a las pequeñas empresas a mantener el empleo, pues no lo fue porque no pudieron acceder a ello. Y pongo como ejemplo el hecho de que las ayudas eran, además de para otros fines, para pagar las cotizaciones a la seguridad social de los trabajadores y se dio la circunstancia que al poco, por norma legal, se les eximió de dichas cotizaciones y ya no pudieron acceder a la subvención por ese concepto. Y nosotros lo que hemos hecho es aprender, aprender de esas experiencias y al igual que lo hicimos antes también lo hemos hecho ahora, nos hemos reunido con representantes del sector de la hostelería, les hemos oído y hemos rediseñado una línea de subvenciones que creemos va a ser más accesible. Y es eso lo que hemos hecho estos meses, hablar con ellos, oír sus necesidades y hacer un nuevo planteamiento más abierto; planteamiento que se fundamenta en dos ayudas, una para gastos corrientes hasta un máximo de 1200 euros por establecimiento y la otra de 600 euros para la adaptación de las terrazas. Se plantea esta última ayuda para las terrazas para compensar las limitaciones de aforo que con motivo de la pandemia tienen en el interior. Que cambian las limitaciones de aforo en el interior y no haga falta recurrir a las terrazas, pues puede pasar porque estamos en esa situación de continuos cambios. Lo que sí quiero es subrayar dos cuestiones: una, que estamos en una realidad muy variable y con la ayuda técnica estamos tratando que las ayudas puedan dar respuesta también a esas nuevas situaciones; y la segunda, que hablamos con ellos y escuchamos sus necesidades para que puedan acceder al dinero que destinamos para estas ayudas. ¿Que el dinero no se utiliza porque cambian por completos las actuales circunstancias? pues no hay por qué preocuparse porque el dinero seguirá en el Ayuntamiento y convocaremos otras ayudas con el dinero que queda disponible, como hemos hecho hasta ahora. Al final, el objeto no es más que uno: ayudar a los establecimientos del pueblo. Y cambiamos las cosas no porque estén mal hechas, sino

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

porque la realidad cambia muy rápidamente y nosotros tenemos que atenernos a un procedimiento para adecuarnos a esa nueva realidad.

- Eluska Irauzu. Gracias Josu. Nosotros también esperamos que esta vez se reparte todo el dinero y todos puedan acceder a las ayudas que solicitan, que no se dejen de conceder por cuestiones formales o de otra índole. Si bien somos conscientes que algunos no podrán sacar provecho de la ayuda para las terrazas, pero si al menos acceder a la otra, pues algo es algo.
- El Alcalde: Como bien ha dicho Josu, y quiero resaltar, estas ayudas han sido consensuadas con representantes del sector de la hostelería, han sido contrastadas con ellos y son sabedores de ellas. Vosotros hasta ahora, en la comisiones, lo único que habéis hecho es pedir un reflexión pero no habéis hecho una propuesta concreta. Y esa es también otra opción, si ponéis una propuesta concreta sobre la mesa, nosotros, como equipo de gobierno, nos comprometemos a analizarla y si es viable no tendremos ningún problema en llevarla adelante. Y por último, el Ayuntamiento lo que no hará es abonar gastos no justificados, todo gasto ha de estar justificado.
- ELuska Irauzu: Por supuesto que el gasto ha de estar justificado y en cuento a que no hemos hecho una propuesta, en su día sí que la hicimos, y recibimos un “no” por respuesta. Entonces... Nuestra propuesta sigue en pie y creo que no tiene sentido volver a plantearla para obtener otro “no”.
- Josu Ezkurdia: Perdonad, no es por alargar el debate, pero no sabemos a qué propuesta os referís. Pero tranquilos, nada más salir de aquí leeremos las actas de las comisiones a las que habéis asistido para ver si en alguna aparece esa propuesta. No creo que os refiráis a algo no concreto, sin cobertura legal, no cuantificado y que se limite a decir que hay que repartir dinero. Si aparece esa propuesta fantasma no tengáis duda que no tenemos problemas en tratarla con vosotros.

10.-MODIFICACIÓN 2/2021 DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 17 de diciembre de 2019, adoptó el acuerdo de aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023.

Aprobado, se ha visto la conveniencia de modificar algunas de las previsiones contempladas en su Anexo 2021, con el fin de ampliar o modificar el ámbito subjetivo y/ o objetivo de algunos de los programas de subvenciones de las diferentes líneas estratégicas.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Dichas modificaciones consisten en:

Derogar el programa G: "ENPLEGUAREN BABESA COVID-19ak ERAGINDAKO SEKTOREETAN" DE LA LINEA ESTRATÉGICA 7 (FOMENTO ECONÓMICO Y SOCIAL) y crear la siguiente nueva línea:

J) DESCRIPCION DEL PROGRAMA: REACTIVACION DE LA ACTIVIDAD ECONOMICA LOCAL

DESTINATARIOS: Personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas y pequeñas empresas, cualquiera que sea su forma jurídica, con menos de 20 trabajadores y sean de los sectores de la industria y/o del comercio y/o de la hostelería según la línea de ayudas que se convoquen.

OBJETO: Apoyar la continuidad de autónomos y pequeñas empresas con domicilio fiscal en Eskoriatza mediante diversas líneas de ayudas que les permitan financiar gastos derivados del funcionamiento ordinario de su actividad.

EFFECTO PRETENDIDO: Reactivar la actividad local y mantener la actividad económica, el empleo y la dimensión competitiva de dichos sectores para que puedan afrontar las consecuencias derivadas del impacto generado por la crisis producida por la Covid19.

MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: Concurrencia competitiva o concesión individualizada según se establezca en la convocatoria.

COSTES PREVISIBLES 2021: 40.000- euros.

FINANCIACION: 0500.471.439.00.01 2021

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, la abstención de los dos concejales presentes de EH BILDU y el voto a favor del resto de los presentes, SE ACUERDA modificar el Plan Estratégico en los términos planteados en los antecedentes.

11.- RUEGOS Y PREGUNTAS

No se producen.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:45 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinario
2021/05/25